

mendia › IBILBIDEAK



Inta haitzulotik dator notizia... JOXEAN GIL-GARCIA


Uxerria, Intako gordelekuan

Nafarroako mugatik hurbil, Ega ibaiaren altzoan, Uxerriko naturgunea dago, hegaztien pautalekua eta bake eremua

JOXEAN GIL-GARCIA

Dormida edo Uxerria deritzan parajea Cogolla, Costalera eta Inta mendiguneek sortzen duten paradisu naturalean dago. Santikurutze Kanpezutik hurbil-hurbil dagoen arren, natur parke horretako ateak ireki berri zaizkie senderismoa gustuko duten zaleei; izan ere, hainbat zidor egokitu dira natur balioak ezagutarazteko.

Santikurutze Kanpezuko institutu ondoan abiatuko dugu Uxerri bidea. Abiapuntua erraz topatuko dugu; Donebikendi Harana, Oteo eta Kontrastara doazen errepideen banatzean. Institutua eta *Inta Bidea* adierazten duen egurrezko zutoin bat ezkerrean utzita (itzulera handik egingo dugu) herrigunerantz zuzenduko gara. Ikastolaren parez pare gara, Ibernalo basilizara doan errepide estua hartuko dugu, eta Cogolla muinoko magalean altxaturik da-



goen tradizio handiko tenplurantz abiatuko gara. Basilizara heldu baino ehunka metro batzuk lehenago, izen bera duen atsedenekura iritsiko gara. Parkea inguratzen duen errepidearen bihurtuganean asfalto utzi eta, eskuinera egin, artadi ederrean paseotxo goxoa egingo dugu.

Artaditik irten bezain pronto,

Uxerriako natur balioak ezagutarazteko asmoarekin hainbat zidor egokitu dituzte

Miralekuko talaia tik pagoek, arteek eta erkametzek sorturiko zuhaitz masadentsoa izango dugu aurrean


ordea, Ama Birjina sakana korritzen duen bide zabalarekin bat egingo dugu. Hainbat ibilbideren berri ematen duen egurrezko zutoin bat ikusiko dugu han. Costalera bidea alde batera utzita, ezkerretik abiatzen den basabideari ekingo diogu orain. PR A-64 Uxerri Bidearekin bat egin baitugu erraza egingo zaigu aurrera

egitea, hots, Miraleku izeneko talaia rantz joatea. Arazo bakarra, akaso, PR A-72 Ior Bideko markak gurutzatzean izango dugu. Edozelan ere, bide printzipalari heldu behar diogu, eta desbideratzei muzin egin. Minutu batzuk zehar-zehar ibili ostean, plazatxo baten itxuradun bide sarda batera iritsiko gara: Miralekuan gaude jada, eta Uxerri paradisuaren talaia pribilegiatutik gertu-gertu.

Bide zabala bertan amaitzen bada ere, Kodes mendilerroko gailurretara (Costalera, Laplana, Lallana, Joar...) doan ohiko bidexka hemen abiatzen da, baita Uxerriko paradisu doana ere. Eskuinera eta gora jotzen duen bidea alde batera utzita (gailurretara doana, alegia), beste bi bidexka ikusiko ditugu. Miralekuko talaia deskubrituko badugu, artadian barneratzen den xendari jarraitu beharko diogu. Harritzko gandor xume batetik ibiliko gara, altituderik galdu gabe. Bi minuturen buruan, edertasun handiko *itsas-labar* baten gain-gainean izango gara. Uraren ordez, jakina, pagoek, arteek eta erkametzek sorturiko zuhaitz masa trinkoa izango dugu aurrez aurre. Gizakiaren txikizioa gogora ekar dezakeenik eza, bestela esanda.

DORMIDA ITURRIA. Miralekutik plaza txora bueltatu ondoren, ezkerrean egin eta paradisuaren barrera abiatzen den xenda oratuko dugu. Adi ibiliko gara, haatik, jaisten hasi eta berehala; izan ere, bide balizatuak zehar-zehar segituko du eta Dormida ibarrean barna jarraitzen duenak ezkerretik eta behe-rantz egingo du ezpelak, pagoak, erkametzak eta arteak gogaide.

Tenperatura hotza gorde ohi duen Dormida iturrira iritsiko gara berehalakoan, ibar nagusiarekin bat egindakoa, hain justu. Ezkerrera egingo dugu han eta behe-rantz jarraituko dugu pittin batean, harik eta hiru metroko haitz baten aurrean izan arte. Bidexkak bananduko dira hantxe: haitzaren eskuinetik doana hobetsiko dugu Inta haizpera eta Ega ibaiaren ertzerantz hurbiltzeko. Pista bat zeharkatuko dugu gero, eta Uxerriko xendari jarraituko. Hala, Inta haitzuloa bera goiko malkarraren babesean lagata, Ega ibaiaren ertzerantz iritsiko gara. Bide nagusiak ezkerrean —mendebaldera— egingo du hor. Ur-emaria bidaide, Lejido deritzen arrantza egiteko laku artifizialen ondok igaro eta, institutura iritsita, amaiera emango diogu ibilbideari autoa utzi dugun lekuan.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net

